

# PROBA ESPEZIFIKOA

2016ko PROBA

**ENPRESAREN  
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Azterketaren egitura:

- **2 galdera teoriko; guztira, 3 puntuko balioa.** Galdera bakoitzak, gehienez, 1,5 puntuko balioa izango du.
- **2 problema; guztira, 4 puntuko balioa.** Atal honetan, ikasleak 3 problemaren artean 2 hautatu eta ebatzi beharko ditu. Problema bakoitzak, gehienez, 2 puntuko balioa izango du.
- **Test motako 10 galdera,** hiru erantzun aukeran baina erantzun zuzena bakarria izanik. Guztira, 3 puntuko balioa izango dute. Erantzun egoki bakoitzari 0,3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko, 0,1 puntu kenduko dira; erantzun gabe utziz gero, ez da punturik kenduko. Atal honetan, dena den, azken emaitza ez da inoiz negatiboa izango.

### GALDERA TEORIKOAK:

1. Zer da BPGa? Nork kalkulatu du, eta zer metodo daude kalkulatzeko?  
(definizioa: 0,5 puntu; nork: 0,5 puntu; metodoak: 0,5 puntu.)
2. Aztertu zer aukera-kostu duen alkandora batek agente ekonomiko hauentzat: alkandoraren fabrikatzailea, alkandoraren saltzailea eta alkandora erabiltzen duen kontsumitzailea.  
(0, 5 puntu agente bakoitzeko)

### PROBLEMAK:

**Aukeratu itzazu hiru problema hauetatik bi.**

1. Burbustu SAK datu hauek aurkezten ditu: hileko kostu finkoak guztira, 90.000 €; kostu aldakorra ekoiztako unitateko, 22 €; produktuaren unitateko salmenta-prezioa, 52 €
  - a) Kalkulatu errentagarritasun-atalasea (itopuntua). (0,75 puntu)
  - b) Zenbat unitate saldu behar lituzke enpresak hilean 30.000 € irabazteko?  
(0,75 puntu)
  - c) Irudikapen grafikoa (0,5 puntu)
2. INCEBA SA adreilu-enpresak datu hauek aurkezten ditu:

	Lan-faktorearen produktibitatea	Kapital-faktorearen produktibitatea
<b>2014. urtea</b>	50 adreilu langileko eta orduko	60 adreilu makinako eta orduko
<b>2015. urtea</b>	60 adreilu langileko eta orduko	75 adreilu makinako eta orduko

Taula horretako datuekin:



- a) Zer aldakuntza (portzentaje gisa) izan du lan-faktorearen produktibitateak?  
(0,75 puntu)
- b) Eta kapital-faktorearena? (0,75 puntu)
- c) Zer ondorio atera dezakegu? (0,5 puntu)

3. Brisketa SAK, urtearen amaieran, ondare-elementuak hauek aurkeztu ditu balantzean:

- a) Efektiboan dagoen dirua ..... 500
- b) BBVAn daukan kontu korrontean dagoen dirua ..... 10.200
- c) Biltegiko izakinak ..... 10.000
- d) Tailerraren lokala ..... 265.000
- e) Makineria ..... 36.000
- f) 4 urtean ordaintzeko mailegua ..... 60.000
- g) Programa informatikoak ..... 6.000
- h) Bezeroengandik kobratu gabeko fakturak ..... 3.000
- i) Bazkideen ekarpenak ..... ???
- j) Hornitzaileei ordaindu gabeko fakturak ..... 15.000
- k) Erreserbak ..... 110.000

Aurreko datuak kontuan hartuta,

- a) Egin ezazu enpresaren balantzea (1 puntu)
- b) Kalkula ezazu errotazio-funtsa (maniobra-fondoa), eta interpreta ezazu grafiko baten laguntzaz (kalkulua: 0,5 puntu; interpretazioa: 0,5 puntu)

### TEST MOTAKO GALDERAK

1. Aukera hauetatik zein ez da sartzen politika makroekonomikoaren neurketetan?
  - a) Inflazioa.
  - b) Langabezia.
  - c) Lehiakortasuna.
2. Sozietate anonimo bateko bazkideek honekin erantzuten dute:
  - a) Sozietate horri egindako ekarpenarekin.
  - b) Beren ondare partikularrekin.
  - c) Beren ondare osoarekin, solidarioki.
3. Itopuntuaren (errentagarritasun-atalasearen) azpitik:
  - a) Enpresak galerak ditu.
  - b) Enpresak mozkinak ditu.
  - c) Enpresak porrot egiten du.
4. Tamaina handiko enpresen aldean, ETE-ek (enpresa txiki eta ertainek) ezaugarri hauek dituzte:
  - a) Malguagoak dira, eta hobeto moldatzen dira ingurunera.
  - b) Teknologia aurreratuenak erabiltzen dituzte.
  - c) Finantzazio-aukera hobeak dituzte.



5. Berreskuratze-epea (*pay-backa*) honi esaten zaio:
  - a) Hornitzaileei ordaintzeko behar den batez besteko aldiari.
  - b) Bezeroei kobratzeko behar den batez besteko aldiari.
  - c) Proiektu baten hasierako inbertsioa berreskuratzekeo behar den batez besteko aldiari.
  
6. Finantzazio-sistema honekin ez dugu ondasun material baten erosketa finantzatzen:
  - a) Factoring-a
  - b) Leasing-a
  - c) Renting-a
  
7. jarduera-tasa % 54 izateak hau esan nahi du:
  - a) Landunen kopurua biztanle kopuru osoa baino % 54 txikiagoa direla.
  - b) Herrialdeko biztanleen %54 lana duela.
  - c) 100 biztanletik 54k lana dutela edo lan bila ari direla.
  
8. Ondasun libreek ezaugarri hauek dituzte:
  - a) Erabilgarritasun handia dute, eta merkatu librean daude.
  - b) Ugariak dira, eta behar ditugun beste daude.
  - c) Beharrezkoak dira (gure beharrak asetzen dituzte), eta urriak dira.
  
9. Hau da ondarearen funtsezko ekuazioa:
  - a) Ondare garbia = Aktiboa + Pasiboa.
  - b) Aktiboa = Ondare garbia + Pasiboa.
  - c) Pasiboa = Ondare garbia - Aktiboa.
  
10. Enpresa baten merkatu-kuota jaitsi egiten da, baldin eta...
  - a. Enpresaren salmentak jaitsi eta lehiakideen salmentak ere proportzio berean jaisten badira.
  - b. Enpresaren salmentak handitzen badira eta lehiakideen salmentak ere proportzio berean handitzen badira.
  - c. Enpresaren salmentak lehiakideenak baino gehiago jaisten badira.



### **GALDERA TEORIKOAK:**

1. Zer da BPGa? Nork kalkulatzen du, eta zer metodo daude kalkulatzeko?

Barne-produktu gordina (BPG) herrialde batean denboraldi batean (eskuarki, urtebete izan ohi da) ekoizten diren azken ondasun eta zerbitzuen balioa da, diru-unitatetan neurtua.

Barne-produktu gordinaren datua (BPG), Espainian, INEk kalkulatzen du hiru hilean behingo periodoarekin.

- Azken ondasun eta zerbitzuetan egiten den gastuen metodoa:  $(C+I+G+X-M)$
- Balio erantsien metodoa:  $BPG = BE1_{sek} + BE2_{sek} + BE3_{sek}$
- Diru-sarreraren metodoa:  $BPG = \text{soldatak} + \text{alokairuak} + \text{interesak} + \text{etekinak}$

2. Aztertu zer aukera-kostu duen alkandora batek agente ekonomiko hauentzat: alkandoraren fabrikatzailea, alkandoraren saltzailea eta alkandora erabiltzen duen kontsumitzailea.

- Fabrikatzailea: alkandora ekoizteagatik ekoitzi ez dituen ondasunak  
Saltzailea: alkandora hori saltzeko erosi duenean alboratu dituen hornitzaileek eskainitako beste arroparen bat.
- Kontsumitzailea: alkandora bat aukeratu duenean, diru horrekin erosi lezakeen beste zerbait (beste alkandora bat, prakak,...).

### **PROBLEMAK**

**1. a.-Errentagarritasun-atalasea: Diru-sarrerak = Gastuak**


$$52 \cdot X = (90.000 + 22 \cdot X)$$

$$X = \frac{90.000}{30} = 3.000 \text{ unitate}$$

**b.- Irabaziak = Diru-sarrerak – Gastuak**

$$30.000 = 52 \cdot X - (90.000 + 22 \cdot X)$$

$$X = \frac{120.000}{30} = 4.000 \text{ unitate}$$



2.

$$\text{lanaren produktibitatearen aldakuntza} = \frac{60 - 50}{50} \cdot 100 = \% 20$$

$$\text{kapitalaren produktibitatearen aldakuntza} = \frac{75 - 60}{60} \cdot 100 = \% 30$$

Kapitalaren produktibitatearen aldakuntza lanarena baino 10 portzentaje-puntu handiagoa izan da 2015ean.

3.

AKTIBOIA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOIA	
<b>Aktibo ez-korrontea</b>	307.000	<b>Ondare Garbia</b>	255.500
Progr. Informa.	6.000	Kapital soziala	<b>145.500</b>
Eraikuntzak	265.000	Erreserbak	110.000
Makineria	36.000	<b>Pasibo ez-korrontea</b>	60.000
<b>Aktibo korrontea</b>	23.500	Epe luz. mailegua	60.000
Izakinak	10.000	<b>Pasibo korrontea</b>	15.000
Bezeroak	3.000	Hornitzaileak	15.000
Bankuak	10.200		
Kutxa	500		
<b>AKTIBOIA GUZTIRA</b>	330.500	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOIA GUZTIRA</b>	330.500

b) Maniobra-fondoak enpresaren finantza-oreka zehazten du. Ondare garbiak gehi pasibo ez-korronteak aktibo korrontearen zati bat finantzatzen du. Maniobra-fondoa = Aktibo Korrontea – Pasibo Korrontea = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea.

Enpresa honen kasuan, maniobra-funtza hau da:

$$\text{Maniobra-funtza} = 23.500 - 15.000 = (255.500 + 60.000) - 307.000 = 8.500 \text{ euro}$$



<b>Aktibo ez-korrontea</b> <b>307.000</b>		<b>Pasibo ez-korrontea + ond. garbia</b> <b>315.500</b>
<b>Aktibo korrontea</b> <b>23.500</b>	<b>M F</b> <b>8.500</b>	
		<b>Pasibo korrontea</b> <b>15.000</b>

Oreka finantzarioan dago: epe laburreko ondasun eta eskubideekin, epe laburreko galdagarriari aurre egin diezaioke; epe luzeko finantzazioa ia izakin guztiak finantzatzen ditu.

### TEST MODUKO GALDERAK

1. c) 2. a) 3. a) 4. a) 5. c) 6. a) 7. b) 8. c) 9. b) 10. b)

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA-ADIERAZLEA</b>
Galdera teorikoak	
1	1.7
2	2.7
Problemak	
1	2.16
2	2.14
3	3.1, 3.5
Test motako galderak	
1	1.7
2	2.7
3	2.16
4	2.4
5	2.25
6	2.23
7	3.7
8	2.19
9	1.8
10	1.1